

DONOSTIAKO EUSKARAREN PLAN OROKORRA 2015-2019





AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. METODOLOGIA.....	5
3. OINARRIZKO AZTERKETA.....	7
3.1. PLANAREN ADIERAZLE OROKORRAK.....	7
3.1.1. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA	8
3.1.1.1. DATU OROKORRA (ITURRIA: EUSTAT).....	8
3.1.1.2. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA AUZOAREN ARABERA (EUSTAT 2011).....	8
3.1.1.3. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA ADINAREN ARABERA (EUSTAT 2011).....	9
3.1.2. EUSKARAREN KALE ERABILERA: DATU OROKORRA (ITURRIA: SOZIOLOGIA KLUSTERRA).....	10
3.1.2.1. EUSKARAREN KALE ERABILERA ADINAREN ETA AUZOAREN ARABERA (SOZIOLOGIA KLUSTERRA-2011)	10
3.1.3. PLANAREN 2011-2014KO AURREKONTUAK. DATU OROKORRA ETA ESPARRUEN ARABERA	11
3.2. BALORAZIO ESTRATEGIKOA, ESPARRUZ ESPARRU	11
4. 2015-2019 PLAN OROKORRAREN OINARRIAK.....	19
4.1. IKUSPEGIA.....	20
4.2. HELBURU NAGUSIA	20
4.3. HELBURU ESTRATEGIKOAK, ESPARRUAK ETA ZEHAR LERROAK.....	21
4.4. OINARRI ESTRATEGIKOAK.....	22
5. ESPARRUETAKO PLANGINTZA	24
5.1. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN JABEKUNTZA.....	25
5.1.1. ESPARRUA: FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	25
5.1.2. ESPARRUA: IRAKASKUNTZA.....	26
5.1.3. ESPARRUA: EUSKALDUNTZEA-ALFABETATZEA.....	28
5.2. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA	29
5.2.1. ADMINISTRAZIOA	29
5.2.2. ESPARRUA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA (MERKATARITZA ETA OSTALARITZA) .	31
5.2.3. ESPARRUA: AISIALDIA-KIROLA.....	32
5.3. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ELIKADURA	34



5.3.1.	ESPARRUA: KULTURGINTZA.....	34
5.3.2.	ESPARRUA: CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA	36
5.3.3.	ESPARRUA: HEDABIDEAK	37
5.4.	ZEHAR LERROAK: SENTSIBILIZAZIOA ETA ZABALKUNDEA	38
5.5.	AUZOETAKO PLAN INTEGRALAK.....	40
6.	PLANAREN JARRAIPENA.....	42
6.1.	HELBURUEN ETA EKINTZEN JARRAIPENA.....	42
7.	AURREKONTUAREN PROIEKZIOA.....	43



1. SARRERA

Dokumentu honek 2015-2019 epealdian Donostiako Udalaren hizkuntza plangintzan gidari izango den Donostiako Euskararen Plan Orokorra jasotzen du. Plan honek, euskararen bilakaeraren indarguneak baliatuz eta ahuleziak zuzenduz, Udalaren hizkuntza politikaren neurri proposamenak jasotzen ditu, euskara normalizatzen jarraitzeko.

Donostiako Udalak “Euskararen Ekimen Estrategikoak, Donostiako Plan Orokorra” jarri zuen abian 2001ean, hirian euskararen erabilerari bultzada emateko. Abiapuntu horri eta ondoren indarrean izan diren planei jarraitutasunez erantzuteko diseinatu da, modu parte hartzaile, planifikatu, integral eta iraunkorrean, 2015-2019 epealdirako gidari izango den Donostiako Euskararen Plan Orokorra, eta urtez urteko ekintza planetan gauzatuko da. Plan honetan, Donostiako Udalaren nahia ez ezik, Donostiako eragileena, auzoetako batzordeetako kideena, Euskararen Aholku Batzordeko kideena eta prozesuan parte hartu duten norbanakoena ere jasotzen da.

Donostiako Plan Orokorra egiteko prozesua honela egituratu da:

- 2011-2015 epealdiko Donostiako Euskararen Plan Orokorraren oinarritzko azterketa.
- Parte-hartze prozesuan bideratutako gogoeta estrategikoa.
- 2015-2019 epealdirako Plan Orokorraren definizio zehatza (2019ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia izango du). Bertan jasotzen dira: aurrera begirako oinarri estrategikoak, eragiteko lehentasunezko esparruak, helburuak, ebaluatzeko adierazleak eta datozen bost urteetarako esku-hartze eta ekintza proposamenak.

Prozesuaren emaitza eta planaren beste alderdi guztiak txosten honetan jaso dira. Ondoren zehazten diren ataletan egituratu da txostena:

1. METODOLOGIA

Gaiari eta parte-hartze prozesuari eraginkortasunez erantzuteko, bai eta Donostiako Udalak zehaztu dituen egitekoak bermatzeko eta aberasteko ere, EMUN aholkularitza taldearen laguntza izan du Euskara Zerbitzuak. Oinarri metodologikoan, diseinuak izan dituen fase bakoitzaren zehaztasun metodologikoak emango dira.

2. OINARRIZKO AZTERKETA

2011-2015 Euskararen Plan Orokorraren, euskarak hirian izandako bilakaeraren eta egun bizi duen egoeraren azterketa egin da. Horretarako, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa gurutzatu dira. Kuantitatiboa, aukeratutako hainbat adierazleren bidez egin da (“Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2011-2015_Memoria” txostena izeneko dokumentuan jasotzen da). Azterketa kualitatiboa, berriz, Euskara Zerbitzuarekin eta parte-hartze prozesuan parte hartu duten herritarrekin eta gizarte esparruetako ordezkariekin bideratutako gogoetaren emaitza da.



3. 2015-2019 PLAN OROKORRA

Donostiako Euskararen Plan Orokorra egituratzeko irizpide nagusia hauxe izan da: bateragarria izatea Eusko Jaurlaritzak eragin eremuko herri administrazioetan garatzeko diseinatu duen Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (aurrerantzean ESEP). Beraz, prozesuan zehar landutako edukiarekin, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren egitura du Plan Orokorrak.

4. ERANSKINA: 2015erako Ekintza Plana

2015-2019 epealdirako esparru plana oinarri hartuta, baliabideak eta lehentasunak kontuan izanik, 2015. urterako plan zehatza jasotzen da dokumentu honetan.

2. METODOLOGIA

Plangintza estrategikorako, Plan Orokorra egiteko, oinarri metodologikoak hiru fase izan ditu.

LEHEN FASEA: OINARRIZKO AZTERKETA

2011-2015 Donostiako Plan Orokorraren azterketan jaso dira epealdi horretako esku-hartzearen datuak, eta baita horien inguruko balorazioa eta gogoeta ere.

Azterketa hori, lehenik, Euskara Zerbitzuak egin du eta “Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) Memoria txostena” izeneko dokumentua osatu du. Dokumentu hori izan da parte hartze prozesuaren abiapuntua.

BIGARREN FASEA: PARTE HARTZE PROZESUA

Bigarren fasean, eragileen, auzoetako batzordeetako kideen, Euskararen Aholku Batzordeko kideen eta, oro har, herritarren parte hartzea bideratu da, bi modutara: webgunearen bidez eta aurrez aurreko saioen bidez.

Webgune irekia.

Herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko, bai eta haiei prozesuaren parte sentiarazteko ere, komunikazio kanal bat diseinatu eta martxan jarri da: www.donostiaeuskaraz.eus atarian kokatu da eta herritarrekin komunikazioa bideratzeko kanala izan da, prozesu parte hartzailearen hasieratik azkenera arte. Bertan, prozesuaren inguruko unean uneko informazioa eskegi da eta herritar orok izan du iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera.

Parte hartze orokorra.

Donostiako gizarte esparru desberdinetako ordezkariekin egin da. Parte hartu dute, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordeko eta auzoetako euskara batzordeetako kideek, Euskara Zerbitzuko teknikariek eta aldez aurretik webgune honen bidez eskaera egin duten herritarrek. Guztira, parte hartze orokorreko lau saio egin dira, eta bat, berezia, hiriko hainbat talde eta elkartetako gazteekin.




Lehenengo bileran, Euskara Zerbitzuak osatutako dokumentua oinarri (Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2011-2015 - Memoria txostena), Donostiako euskararen egoeraren diagnosi kualitatiboa egin eta osatu da. Bertan, eragiteko esparruak eta plan berrirako helburuak identifikatu eta lehenetsi dira.

Bigarren bileran, esparruetako ekintzen proposamena egin da eta hirugarren bileran, aurreko bi saioen emaitza aurkeztu, eta parte hartzaileei esku hartzeko lehentasunak ezartzeko eskatu zaie. Azkenik, laugarren bileran aurreko bileretan landutakoarekin osatutako dokumentuari azken ekarpenak egin zaizkio.

Gazteekin saio bakarra egin da, euskararen erabileraren inguruko haien diagnosis jasotzeko eta aurrera begirako proposamenak lantzeko. Saio hartan jasotakoa txosteneko beste esparru batzuetan kokatu dugu. Izan ere, "Gazteak" adin tarte bat da, eta ez ESEPekeko esparru bat. Hirugarren saio orokorrera ere gonbidatu ditugu eta parte hartu dute.

Irudia: parte-hartze prozesua bideratzeko gune eta saioak.



HIRUGARREN FASEA: PLANAREN DEFINIZIOA

Hirugarren fasean, aurreko urratsen emaitza eskuartean dugula, Plan Orokorra definitu da.

Plan Orokorrak atal hauek ditu:

- Planaren oinarriak:
 - Ikuspegia.
 - Helburu nagusia eta esparruak.
- Esparruetako plangintza:
 - Esparruetako helburu zehatzak eta horiek lortzeko bitartekoak: oinarri estrategikoak eta neurriak.



- Adierazleak: helburu bakoitza zehaztean ebaluaziorako erabili beharreko adierazlea(k). Helburuen betetze mailaren berri emango diguten adierazleak, urtez urte zein amaieran lortu beharrekoak. Datozen urteetan eman beharko den jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa aurreikusiz, urtez urteko mugarriak zehaztuko dira.
- Planaren jarraipena.
- 2015eko kudeaketa plana, urteko ekintzaz osatua.

3. OINARRIZKO AZTERKETA

Lehenik, fase honen hasieran, oinarrizko azterketa egin du Euskara Zerbitzuak, 2011-2015eko planaren datu kuantitatiboak jasoz eta balorazio kualitatiboa eginez. Datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa den hausnarketa, azterketa eta eztabaida bideratzeko abiapuntua izan da.

Hori guztia parte-hartze prozesuan parte hartu dutenen eskura jarri, eta informazio hori osatzeko aukera eman da. Jasotako iritziek eta ekarpenek osatzen dute, beraz, oinarrizko azterketa.

Azterketa atal hauetan egituratu da:

- Planaren adierazle orokorrak.
- Donostiako Euskararen Plan Orokorraren balorazio kualitatiboa, esparruz esparru. Esparru bakoitzeko ekintza nagusi eta esanguratsuenak bildu dira eta horien sintesia egin da. Izan ere, 2011-2015 epealdiko lanaren irakurketa errazte aldera, horiek laburbiltzea erabaki da.

3.1. PLANAREN ADIERAZLE OROKORRAK

Adierazle hauek hiriko egoera soziolinguistiko orokorraren eta haren bilakaeraren erakusle izanik, erreferentziazko datuak dira planak bultzatutako programa eta ekintzak nahiz erabilitako baliabideak aztertzeko. Planaren adierazle makrolinguistikoak dira, planaren eragin eremutik kanpo dauden bestelako faktore batzuek ere eragin oso adierazgarria dutela jakinik.

Hauek dira adierazleak:

- Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna: datu orokorra, auzoaren arabera eta adinaren arabera.
- Euskararen kale erabilera: datu orokorra eta adinaren arabera.
- Planaren 2011-2014ko aurrekontuak: datu orokorra eta esparruen arabera.



3.1.1. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA

3.1.1.1. DATU OROKORRA (ITURRIA: EUSTAT)

	2001	2006	2011
Guztira	174.037	176.207	177.565
Euskaldunak	60.415 (% 34,71)	71.106 (% 40,35)	72.071 (% 40,6)
Ia euskaldunak	49.184 (% 28,26)	46.900 (% 26,61)	50.793 (% 28,6)
Erdaldunak	64.438 (% 37)	58.201 (% 33,03)	54.701 (% 30,8)

3.1.1.2. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA AUZOAREN ARABERA (EUSTAT 2011)

	GUZTIRA	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
Guztira	177.565	72.071	50.793	54.701
Erdialdea	21.843	9.293	5.873	6.677
Aiete	12.770	5.662	3.897	3.211
Altza	19.323	6.144	5.770	7.409
Amara Berri	26.688	10.582	7.811	8.295
Antigua	14.409	6.842	3.891	3.676
Añorga	2.082	1.181	519	382
Ategorrieta-Ulía	3.810	1.582	1.107	1.121
Egia	14.282	5.571	3.966	4.745
Gros	18.696	7.328	5.313	6.055
Ibaeta	8.930	4.338	2.481	2.111
Igeldo	1.008	627	210	171
Intxaurreondo	15.521	6.138	4.664	4.719
Loiola	4.733	1.711	1.372	1.650
Martutene	2.736	1.152	771	813
Miracruz-Bidebieta	8.719	2.911	2.635	3.173
Miramón-Zorroaga	1.725	782	476	467
Zubieta	277	217	34	26
Landarbaso	13	10	3	.



3.1.1.3. BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA ADINAREN ARABERA (EUSTAT 2011)

	Guztira	Euskaldunak				la-euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfabetatuak	Erdizka alfabetatuak	Alfabetatu gabeak	Guztira	Alfabetatuak	Alfabetatu gabeak	Pasiboak	
Donostia	177.565	72.071	58.985	10.062	3.024	50.793	26.609	10.268	13.916	54.701
2-4	4.625	3.014	589	857	1.568	1.246	287	883	76	365
5-9	7.828	6.564	5.689	808	67	977	856	89	32	287
10-14	7.804	6.866	6.651	203	12	717	649	21	47	221
15-19	7.373	6.096	5.976	99	21	748	533	46	169	529
20-24	8.562	5.813	5.601	171	41	1.395	934	163	298	1.354
25-29	10.708	5.643	5.354	231	58	2.694	1.790	363	541	2.371
30-34	12.978	5.440	5.095	270	75	4.386	2.893	513	980	3.152
35-39	13.921	5.039	4.507	448	84	5.641	3.585	721	1.335	3.241
40-44	14.024	4.468	3.813	562	93	5.829	3.369	882	1.578	3.727
45-49	14.622	4.401	3.663	648	90	5.616	2.920	962	1.734	4.605
50-54	14.018	3.896	3.147	671	78	5.035	2.357	1.012	1.666	5.087
55-59	12.562	3.041	2.265	678	98	4.302	1.923	979	1.400	5.219
60-64	11.628	2.722	1.847	729	146	3.692	1.574	896	1.222	5.214
65-69	9.841	2.269	1.335	776	158	2.853	1.077	822	954	4.719
70-74	7.691	1.815	1.018	696	101	1.903	648	623	632	3.973
>=75	19.380	4.984	2.435	2.215	334	3.759	1.214	1.293	1.252	10.637



3.1.2. EUSKARAREN KALE ERABILERA: DATU OROKORRA (ITURRIA: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA)

2005. urteko datua: % 18	2011. urteko datua: % 15.9
-----------------------------	-------------------------------

3.1.2.1. EUSKARAREN KALE ERABILERA ADINAREN ETA AUZOAREN ARABERA (SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-2011)

EUSKARAREN ERABILERA ADIN TALDEKA				
Udalerria	HAURRAK (14 urte bitarte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (25-64 urte)	ADINEKOAK (65 urtetik gora)
Donostia	% 27,2	% 14,6	% 14,0	% 6,3
EUSKARAREN ERABILERA AUZOZ AUZO				
Udalerria	Zonaldeak	Euskararen kale erabilera (%)	Gaztelaniaren kale erabilera (%)	Beste hizkuntzen kale erabilera (%)
Donostia	Aiete	% 26,8	% 70,3	% 2,9
Donostia	Parte Zaharra	% 22,3	% 72,0	% 5,7
Donostia	Altza	% 6,2	% 93,1	% 0,7
Donostia	Amara Berri	% 10,4	% 88,2	% 1,4
Donostia	Amara Zaharra	% 9,9	% 85,8	% 4,4
Donostia	Antigua	% 32,7	% 67,0	% 0,3
Donostia	Bidebieta	% 5,6	% 91,5	% 2,9
Donostia	Boulevard	% 11,4	% 83,0	% 5,5
Donostia	Egia	% 15,0	% 82,4	% 2,7
Donostia	Gros	% 11,0	% 85,9	% 3,1
Donostia	Intxaurrondo	% 9,5	% 89,7	% 0,8
Donostia	Loiola	% 12,5	% 87,5	% 0,0
Donostia	Loiolako Erribera	% 18,0	% 81,4	% 0,6
Donostia	Martutene	% 14,3	% 84,8	% 1,0
Donostia	San Martin	% 13,1	% 78,8	% 8,1
Donostia	Ulia	% 15,0	% 84,5	% 0,5



3.1.3. PLANAREN 2011-2014KO AURREKONTUAK. DATU OROKORRA ETA ESPARRUEN ARABERA

2011tik 2014ra Euskara Zerbitzua 5.321.302 € bideratu ditu Euskararen Plan Orokorreko ekintzetarako. Hortik kanpo geratzen dira giza baliabideen gastuak eta administrazioa euskalduntzeko gastuak. Horrez gain, 2015eko aurrekontua ere (urtarrila-apirila) ez da kontuan hartu.

Sektorea	Data	Ekintzak	Gastuen portzentajea
1. Irakaskuntza	11-14	43	% 24
2. Euskalduntze-alfabetatzea	11-14	26	% 17
3. Familia	11-14	21	% 3
4. Administrazioa	11-14	5	% 0,04
5. Lan mundua	11-14	32	% 2,6
6. Aisia	11-14	26	% 17,6
7. Kirola	11-14	8	% 0,26
8. Kulturgintza	11-14	40	% 8,7
9. Komunikabideak	11-14	18	% 15,21
10. Hizkuntza baliabideak eta corpusa	11-14	17	% 2,2
11. Euskararen motibazioa eta sustapena	11-14	48	% 9,39
12. Sektore guztiak	11-14	284	% 100

3.2. BALORAZIO ESTRATEGIKOA, ESPARRUZ ESPARRU

2011-2015eko planaren eta egungo egoeraren balorazioa esparruka antolatu dugu. Esparru bakoitzaren datu kuantitatiboak, helburu eta ekintza mailako adierazleak, ez dira ondorengo lerrootan azaltzen.

Horiek 2011-2015 Plan Orokorren memoria txostenean daude jasota, edonork kontsultatu ahal izateko. Beraz, txosten horren sintesia aurkeztuko dugu ondorengo lerrootan (2015-2019ko planaren abiapuntua hobeto kokatzen lagunduko diguten gakoak), parte-hartze prozesuan egindako ekarpenekin osatuta.



1. ESPARRUA: FAMILIA TRANSMISIOA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

- Esparru honetan, gurasoentzako sentsibilizazio ekintzak bideratzen dira. Bi motatako sentsibilizazio ekintzak dira nagusi: gurasoak hizkuntzaren transmisioaren garrantziaz jabetzeko kanpainak (haur jaio berrien kanpaina hiru hilean behin, haurrak D ereduan matrikulatzeko kanpaina...) eta ikastetxeetan gurasoentzat antolatutako hitzaldiak. Zaila egiten zaie ikastetxeei gurasoengana heltzea, alegia, taldea osatzea. Gainera, hitzaldietara, oro har, jende gutxi etortzen da eta askotan jada sentsibilizatuta dauden gurasoak izaten dira.

- Aipagarria da guraso talde handi bat, 700 ingurukoa, ari dela ikastetxeetan euskara ikasten bereziki guraso horientzat antolatutako euskalduntze ikastaroetan. Taldeak ikastetxe eta euskaltegien koordinazioaren bidez osatzen dira.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

- Guraso gazteak gero eta gehiago dira euskaldunak (D ereduan ikasitakoak). Euskarazko gaitasun ona dute.

- Guraso euskaldunen artean euskaraz aritzeko joera falta da. Umeek eta gazteek kontraesana nabaritzen dute, askok euskaraz bakarrik haurrei egiten diete eta. Horrek erdarazko erabilera sustatzea dakar. Etxeko erabileran eragiteko ekimenak falta dira.

- Etxeko hizkuntzak duen eragin handia kontuan izanda, erabilera eskasaren inguruko arrazoiak eta eragiten duten faktoreak sakonki ezagutzea falta zaigu, haietan eragiteko.

- Gurasoek ez dute ikusten euskal kulturgintza transmititzearen garrantzia.

- Etxeko langileak eta ume-zaintzaileak erdaldunak izateak eragin negatiboa du euskararen erabileran.

- Familia transmisioaren gaia auzoetako euskara batzordeen dinamikan txertatu behar da.

2. ESPARRUA: IRAKASKUNTZA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

- D eredua nagusitzen ari da derrigorrezko hezkuntzan, eta euskarazko ereduetan matrikulatzea da egun jendartearen joera. Hori indartzeko, Euskara Zerbitzuak euskarazko matrikulazioaren aldeko kanpainak eta sentsibilizazio ekintzak egiten ditu. Hala ere, A eredua ere ematen da ikastetxe pribatu gutxi batzuetan, nahiz eta ehuneko txikia izan. Horrez gain, badirudi zenbait ikastetxetan euskaraz ordu gutxiago ematen hasi direla, hiru eleko eskaintzaren eraginez.

- Eskoletan bada sentsibilizazioa, kontzientzia eta kezka hurrek euskara erabiltzen ez dutela eta. Esaterako, 6-10 urteko haurren arteko harremanetan lehen baino joera handiagoa sumatzen da erdararako. Euskara Zerbitzuak hainbat proiektu ditu martxan alor horretan, eta esparru horretan esku hartzeko harreman handia dago ikastetxeekin; hain zuzen, ikasleei begirako hainbat ekintza elkarlanean egiten dira: "Gu ere bertsoetan", "Gazteak antzerkira", "Haurrak beti jolasean"... Horrez gain, Euskara Zerbitzuak antolatutako ekintzez gain, hirian antolatzen diren aisialdiko jardueren berri ere ematen zaie ikastetxeei.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

- Euskara ikas eremuko hizkuntza gisa ikusten da eta eremu ez-formaletan erdaraz egiten da.

- Gaztetxoek ez dute hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreen ezagutzarik eta, zentzu horretan, euskaraz gehiago hitz egiteko tresnak falta zaizkie.

- Gazteek ez dute euskara nagusi den elkargunerik.



3. ESPARRUA: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

Euskara Zerbitzuak diru baliabide handiak jartzen ditu euskalduntzen laguntzeko eta urtero euskaltegiekin batera egiten den matrikulazio kanpaina aurrera eramateko. Progresiboki baliabide horiek handitzen joatea da asmoa. Langabeentzako doako ikastaroak ere antolatzen hasia da Euskara Zerbitzua, arrakasta handiz hasi ere.

Bestalde, ikasleen beharretara egokituriko ikastaro bereziak eskaini eta antolatzen ditu: merkatari eta ostalariei, erretiratuei, ikastetxean bertan eskaintzen zaizkienak gurasoei, AISA ikastaroak etorkinei eta abar. Ikastaro horiek harrera ona dute.

Euskaltegiek erabilera sustatzeko antolatzen dituzten jarduerak ere diruz laguntzen dira. Horrez gain, euskaltegiek, Bagerak eta Euskara Zerbitzuak erabilera indartzeko mintzodromoak antolatzen dituzte elkarlanean.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

Euskara ikasten jende dezente ari da.

Ikasketa prozesuan baliabide informatikoez laguntzen dute.

Mintzodromoak, Mintzanet oso esperientzia interesgarriak dira.

Auzoren batean euskaltegi eta ikasle kopuruan jaitsiera egon da.

Baliabide ekonomiko nahikorik ez dago eskaera guztiari erantzuteko.

Euskalduntze prozesua ez da doakoa. Euskara ikasteko matrikula ordaintzeko, diru asko aurreratu behar da.

Oro har, euskara ikasteko motibazioa ez da pragmatikoa, ez da beharra sumatzen.

Euskaldun berrientzako erabilera espazio nahikorik ez dago, erabilera areagotzeko ekimenak falta dira.

Euskara ikasleek euskararen ezagutza soziolinguistikoa izan beharko lukete, kontzientziatzen laguntzeko.



4. ESPARRUA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

● Esparru honetan bereizi ditugu enpresa pribatuari lotutako helburuak, batetik, eta merkataritza eta ostalaritzari lotutakoak, bestetik. Lehenengoari dagokionez, enpresa pribatuan zuzenean eragiteko (enpresa planak eta abar) dagoeneko badira beste administrazioetatik bideratutako esku-hartzeak eta diru laguntzak. Beraz, Udalaren eskumenak eta baliabideak kontuan harturik, eremu honetan zeharka eragin da, Udalak kontratatzen dituen enpresa guztiei ezarritako hizkuntza irizpideen bitartez. Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Planak zehazki jasotzen du zer hizkuntza irizpide bete behar dituzten enpresek Udalak kontratatu ahal izateko. Jarraipena egiteko modua landu behar da aurrerantzean alor honetan.

● Bestalde, “Enpresarean” ekimenak lagunduta, enpresa pribatuen alorrean ere eragin da, zeharka.

● Euskara Zerbitzuaren esku-hartze zuzena hiriko merkataritzara eta ostalaritzara bideratu da. Eremu horretara zuzendutakoak dira, besteak beste, itzulpen zerbitzua, euskalduntzeko xede bereziko taldeak, kanpainak, euskaraz artatzeko gaitasuna duten establezimenduen identifikazioa (7 auzotako 10 kaletan, Parte Zaharrean, Intxaurren eta “Bai Euskarari” ziurtagiria dutenen artean) eta hizkuntz jarrera... Merkataritzarako ekimena(k) bakarrik auzo edo gune batzuetan landu da, ezin baita hiri osora batera iritsi. Lan bolumena handia da eta baliabideak mugatuak. Epeka egingo da (2015ean Antigua, Ibaeta, Igara, Amara eta Erdialdean ezarriko da).

● Merkataritzako eragileekin egindako elkarlanak lagundu egin du egitasmoa arrakastatsua izaten. Jarraitutasuna lortzeko, elkarlanean sakontzea garrantzitsua izango da.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

● Denda eta tabernetan ahozko erabileran izan diren aurrerapausoak nabariak dira. Zentzu horretan, euskarazko zerbitzua ematen duten establezimenduak identifikatzeak lagundu egiten du.

● Merkataritzan euskara ikasteko beharra sumatzen hasiak dira.

● Jende askok daki euskaraz, eta zerbitzua euskaraz emateko gai da.

● Esparru honetan gaztelania da nagusi, zentzu orokorrean. Denda berrietan paisaia linguistikoa ez da euskaraz jartzen normalean.

● Tabernetan euskarazko egunkari, irrati eta telebistaren presentzia oso eskasa da.

● Erabiltzaile/bezero gisa ez gara “ausartzen” euskaraz hitz egitera, ohiturengatik ez dugu euskaraz egiten.

● Enpresa pribatuetan euskararen ezagutza ez da eskatzen lan egiteko baldintza gisa. Horrek eragina du zerbitzu hizkuntzan.



5. ESPARRUA: AISIALDIA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

● Haurrentzako euskarazko aisialdi eskaintzari dagokionez, eta euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Euskara Zerbitzua “Oporretan euskaraz” udaleku irekiak eskaintzen ditu 4-12 urtekoentzat eta “Parketarrak” ekimena 3-8 urte bitartekoentzat. Udalekuari dagokionez, 850 bat haurrek parte hartzen dute urtero. Duela 3 urte sortutako “Parketarrak” egitasmoak, berriz, hazkunde garrantzitsua izan du: 2014an 9 auzotan gauzatu da, 96 saio eginda. Ekintza arrakastatsu horrek hainbat esparru jorratzen ditu: aisialdia, familia transmisioa eta auzoetako plan integralak .

● Gazteen aisialdiari dagokionez, “Festan Blai” ekimena sortu eta txertatu da Aste Nagusian, Kursaalera terrazetako gunean. DJ euskaldunen eskaintza areagotzearekin batera, gazteen harremanak naturaltasunez euskaraz izan daitezen ekintza erakargarriak antolatzen dira: lehiaketa(k) eta abar.

● Bestalde, irabazi asmorik gabeko elkarteei beren ekintzak bideratzeko diru laguntzak ematen zaizkie eta hizkuntzaren normalizazioarekin lotura duten ekintzak lehenesten dira.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

● Euskarazko kultur eskaintza badago.

● Ekimenak antolatu baino areago, gizartean dauden ekimenetan eragile eta bultzatzaile izan behar du Euskara Zerbitzua.

● Gazteentzako euskarazko eskaintza (espazioa eta jarduerak) egonkorrik ez dago. Euskaldunek elkar ezagutzeko elkargune gehiago falta dira.

● Helduentzako kultur eskaintzari euskaldunek ez diote erantzuten; agian ez da nahikoa komunikatzen?

● Euskarazko eskaintza gehiena haur eta gazteei begira egiten da, indarra hor jartzen da. Helduen eskaintzari erreparatzea ere garrantzitsua da.

● Gazteria, Kultura, Kirola sailekin elkarlana handitu behar da. Eragile lana egin behar da Euskara Zerbitzuan. Hainbat ekintza Gazteria sailak bere gain hartzeko modukoak dira.



6. ESPARRUA: KIROLA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

Udal erakundeek antolatzen dituzten jardueretan euskararen erabileraren jarraipen zehatza egiten da. Kirol elkarteetan jardueretan eragitea, berriz, zailtasun handiko helburua da, kirol elkarte asko baitago Euskara Zerbitzuak dauzkan baliabideen bidez eragin ahal izateko.

Añorga Kirol Elkartearekin, euskararen erabilera sustatzeko proiektu pilotu bat jarri da martxan (entrenatzaileen eta haurren arteko hizkuntza erabilera neurtu eta sustatzeko ekimena). Emaitzak aztertu eta beste elkarte batzuetara hedatzeko modua egon daitekeen aztertuko da.

Herritarren iritzia eta ekarpenak

Eskola kirolari dagokionez, begiraleen ezagutza bermatuta dago baina erabileran eragin beharra dago.

Euskara Zerbitzuak gizartean dauden ekimenetan eragile eta bultzatzaile lanak egin behar ditu (adibidez, Donostia Cup-en, eskolaz kanpoko kirolean eta abar).

Ikastaro gehiago eskaini arren, gazte zein helduentzako eskaintza nagusiki gaztelaniazkoa da. Kiroletako ekintzetan euskararen erabilera eremuak falta dira. Oraindik eskaintza ez da parekoa euskaraz eta erdaraz.

Añorga Kirol Elkarteetan abian jarri den ekimena interesgarria izan daiteke. Entrenatzaile eta haurren arteko hizkuntza erabileran ikasturte osoan eragiten da, modu jarraituan.

Kirol elkarteak pisu handia hartzen ari dira esparru honetan; haur eta nerabe asko mugitzen dituzte. Udalak kudeatzen ez dituen talde horiekin (klubak) ez dago lan dinamikarik martxan (Añorga proba pilotua da oraingoz).

Klub eta federazioetan hizkuntza balio gisa txertatzeko ekintzak falta dira, gazteek euskal ereduak eta erabilera espazioak izan ditzaten.

7. ESPARRUA: KULTURGINTZA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

Euskara Zerbitzuaren eta Donostia Kulturaren arteko elkarlana handia da. Kasu batzuetan, bi erakundeen artean antolatzen dituzte ekintzak, Donostia Antzerki Saria, esaterako; beste batzuetan, ekintzak Donostia Kulturak antolatzen dituen arren, Euskara Zerbitzuak jarraipena eta sustapen lanak egiten ditu: poesia orduak, Poltsiko Antzerkia sorkuntza... Horrez gain, hirian antolatzen diren gainerako kultur ekintzen sustapena eta komunikazioa ere bideratzen du. Donostia Antzerki Sariak emaitza onak eman ditu, urtean zehar Donostian euskarazko antzerki programazioa oso zabala da, udan euskarazko antzerkia indartu da eta merkatuan dagoen eskaintza gehientsuena Donostiara iristen da.

Herritarren iritzia eta ekarpenak

Helduentzako euskarazko eskaintza handitu beharra ikusten da. Donostia Kulturarekin elkarlanean aztertu beharko litzateke zerk eragiten duen gaztelaniaren aldeko aukera askoz handiagoa izatea. Politika garbia behar da euskarari lehentasuna emateko, baina euskal kulturako erreferenteak ez dira jendearengana heltzen.

Euskara Zerbitzuak eragiten jarraitu behar du Donostia Kulturaren programazioan eta kulturgintzan oro har. Donostia Kulturak bere gain hartu beharko litzuzke ekimen batzuk, adibidez



Poltsiko Antzerkia, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta abar. Kulturgintzaren esparruan zehar lerrotasuna lantzea gaketat jotzen da.

- Zinemaldia eta antzeko ekitaldi handietan gaztelania da nagusi.

8. ESPARRUA: CORPUSA ETA HIZKUNTZA PLANGINTZA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

- Alor honetan jorratutako hainbat ekintza bertan behera geratu dira, Euskara Zerbitzuaren eginkizuntzat jotzen ez direlako edo, beste ekintza batzuen aurrean, lehentasunik ez dutelako. Egun, "Ahotsak" proiektua diruz laguntzen da eta dagoeneko martxan dira hori zabaltzeko ekintza batzuk (San Telmoko erakusketa iraunkorra, esate baterako).

- Irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eskaintzen zaie.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

- Hitz egiteko jarioetasuna falta zaie gazteei. Euskara ez-formala landu beharra dago.

9. ESPARRUA: HEDABIDEAK

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

- Euskara Zerbitzuak diruz laguntzen ditu hainbat euskarazko komunikabide: Irutxuloko Hitza, Hamaika TB, Ttan Ttakun irratia...Horrez gain, Gaztezulo aldizkariaren "Irakurriz gozatu" ekimena aldizkari horrekin elkarlanean bideratzen da: Donostiako ikastetxeetako 14-18 adin tartekoei Gaztezulo banatzen zaie, aldizkaria ezagut dezaten. Ikasleek oso gustura hartzen dute eta eragin handia du aldizkariaren eta euskal kulturaren ezagutzan, eta harpidetzan.

- Publizitateari dagokionez, euskararen presentzia areagotzeko saioak egin izan dira baina emaitzak ez dira onak izan: eragina lortzeko Udalak jarri behar duen baliabide kopurua handiegia da. Une honetan Udala lantzen ari den bidea zehar lerrotasuna da, hau da, lanean ari da publizitateari buruz udal araudiak dioena bete dadin kontratazioetan, lagapenetan, diru laguntzetan, baimenetan eta abar.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

- Erdarazko telebista ikusten da eta horrek eragin negatiboa du haurrengan.
- Tokiko hedabideek gaztelaniaren aldeko hizkuntza jokaera dute.
- Euskarazko komunikabideen egoera (baldintza falta) ahuldu egin da. Kontsumo eta presentziaren joera beheranzkoa da. Euskarazko komunikabideak indartu eta egonkortu beharra ikusten da baina komunikabideen efikaziaren inguruko hausnarketa bultzatuta.
- Euskararen erabilera kuota betetzen ez duten komunikabideak ez lirateke diruz lagundu behar, ez eta bertan publizitaterik jarri behar ere.



10. ESPARRUA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

Jauzi interesgarria lortu da euskararen aldeko sentsibilizazioan eta motibazioan, besteak beste, auzoetako eragile askorekin lan eginez eta herritarren eta Udalaren arteko elkarlanarekin antolatutako egitasmoak bideratuz. Euskararen Egunaren inguruan ekintza garrantzitsuak bideratu dira baina, nagusiki, sortu den elkarlana da aipatzekoa. “Euskararen hiria” lelopean ere hainbat komunikazio ekintza gauzatu dira.

11. ESPARRUA: AUZOETAKO PLANAK

Euskara Zerbitzua: egoerari buruzko azalpenak

Auzoetako euskara batzordeek plan integralak eratzeko eta bertako ekintzak aurrera eramateko diru laguntzak ematen ditu Euskara Zerbitzuak. Egun auzoetako plan integralen bidez 9 auzotan eragiten da, tokian tokiko berezitasunak kontuan hartuz. Bagerako dinamizatzailer batek planak bideratzen ditu, baina hori ez da nahikoa auzo guztiei zerbitzu egokia emateko, baliabide ekonomikoak mugatuak baitira. Gainera, aipatu behar da euskara batzorde horiek boluntarioek osatzen dituztela; beraz, indarrak eta baliabideak ondo neurtu beharko dira etorkizunean eraginkortasunez lan egin nahi bada.

Herritarren iritziak eta ekarpenak

Auzoetan proposatutako dinamikak (euskara batzordea sortzea eta ekimenak antolatzea) auzoetan eragin oso positiboa izan du, plana gizarteratzea lortu da. Auzo bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea arrakastarako gakoa izan da.

Auzoetako euskara batzordeetan ez daude esparru guztietako ordezkariak; adibidez, lan mundukoak.

Funtzionamendua ez dago sistematizatuta. Kontu burokratikoak arindu behar dira.



4. 2015-2019 PLAN OROKORRAREN OINARRIAK

Donostiako Euskararen Plan Orokorra diseinatzeko prozesuan landu eta zehaztutako helburu eta neurriak, ESEPEk proposatzen duen egituraketaren arabera antolatu dira, beti ere, Donostiako Euskararen Plan Orokorrari dagozkion edukiak eta ezaugarriak errespetatuz bai helburuen zehaztapena egiterakoan eta baita ekintzak diseinatzerakoan ere.

ESEP da Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politikaren neurri-proposamenak jasotzeko herri administrazio guztientzat diseinatu duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

Gauzak horrela, hauek dira Donostiako Euskararen Plan Orokorraren oinarriak:

- Ikuspegia
- Planaren helburu nagusia
- Helburu estrategikoak eta esparruak
- Oinarri estrategikoak



4.1. IKUSPEGIA

Plan Orokorren datozen urteetarako norabideak osatzen du ikuspegia. Ikuspegia, parte-hartze prozesuan, bide orri gisa irudikatu nahi izan da eta ondorengo irudian parte hartzaileen nahiaren prospekzioa jaso da.

Irudia: parte-hartze prozesuan osatutako ikuspegia, lauki bakoitzean proposatutako “norabidea”.



4.2. HELBURU NAGUSIA

Donostian euskara guztiz berreskuratze eta zabaltzeko bidean aurrera egitea, Udalaren eskumenetan arituz, hizkuntzaren normalizazio prozesuan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinatuz eta lankidetzan arituz.

Euskararen erabilera indartzea donostiarrei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, sentsibilizazioa bultzatuz eta euskaraz ez dakitenak euskalduntzera erakarriz.



4.3. HELBURU ESTRATEGIKOAK, ESPARRUAK ETA ZEHAR LERROAK

Herri administrazioen hizkuntza plangintza hiru helburu estrategikoren inguruan antolatu da. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera jabekuntzak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala. Eta, aldi berean, helburu hauek lortzeko esku hartzeari begira, esparru desberdinetan antolatuta dago plana.

Esparruen baitako egituraketa honekin batera, garrantzi handia dute plana diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan zehar lerroek: euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioak, zabalkundeak eta plana inplementatzeko tresna izango diren auzoetako plan integralek.

1. Helburu estrategikoa: euskararen jabekuntza

Esparruak

1. Familia bidezko transmisioa.
2. Irakaskuntza.
3. Euskalduntze-alfabetatzea.

2. Helburu estrategikoa: euskararen erabilera

Esparruak

4. Administrazioa.
5. Arlo sozioekonomikoa: merkataritza eta ostalaritza.
6. Aisia eta kirola.

3. Helburu estrategikoa: euskararen elikadura

Esparruak

7. Kulturgintza.
8. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea.
9. Hedabideak.

4. Zehar lerroak

Helburu estrategikotzat jo diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituen zehar lerroak, alegia. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea.

Euskararen aldeko motibazioa

10. Sentsibilizazioa eta motibazioa.

Euskararen zabalkundea

11. Hirirako proiektzioa.

Euskararen azken urteotako garapenak ezinbesteko bilakatu du hizkuntzaren inguruko proiektzioa eta zabalkundea.



ESEPeK espresuki jasotzen ez dituen arren, Donostiako Euskararen Plan Orokorra gauzatzeko ezinbesteko zehar lerro eta tresna izango dira:

12. Auzoetako plan integralak.

Donostiako Euskararen Plan Orokorra auzo eta herri bakoitzaren egoera eta beharretara egokituta ezartzen lagunduko digute auzoetako plan integralak.

4.4. OINARRI ESTRATEGIKOAK

2015-2019 Plan Orokorra gauzatzean garrantzitsua izango da hirian hizkuntza normalizatzea posible egingo duten mekanismoetan eraginez esku hartzea. Horretarako, Euskara Zerbitzuaren posizionamenduak eta esku-hartze eremuek ondo definituta egon behar dute planean. Helburuak definitu eta ekintzak bideratzeko orduan, oinarri estrategiko hauek dagokien isla izango dute planean.

Horien bidez, Euskara Zerbitzuak hurrengo plangintzaldirako bere posizionamendua eta eskuduntza definitzen ditu:

1. *Gainerako udal atal, erakunde zein entitate pribatuetan ERAGITEA dagokio Euskara Zerbitzuari.*

Egitearen eta eragitearen arteko osagarritasuna bilatu behar du Euskara Zerbitzuak hurrengo plangintzaldian. Bata eta bestea egin behar ditu, noski, baina agerian geratu da aurrerantzean eragiteari garrantzi handiagoa eman behar zaiola. Euskara Zerbitzuari dagokio beste udal ataletan eragitea jarduerak euskaraz egin ditzaten, bai eta entitate zein erakunde pribatuetan eragitea ere, haiek euskararen normalizazioa beren gain har dezaten...

Alegia, ondo bereizi beharko da zer den ekintza eta zer den estrategia. Estrategia izango baita beste erakunde publikoekin koordinazioa lantzea, beste udal atalekin lan egitea edota auzoen planen bitartez neurria egokitutako ekintzak garatzea. Beraz, nahiz eta planaren egituraketa esparruz esparru aurkeztu, gauzatzeko orduan funtsezko alderdia zehar lerrotasuna izango da; alegia, beste zenbait dimentsio eta ikuspegi hartuko dira kontuan.

2. *GAZTEAK hizkuntzaren normalizazio prozesuan giltzarri.*

Plangintzaldi honetan, esparruak gainditzen dituen aldagai garrantzitsu bat hartu da kontuan: adina, alegia. Bereziki landu dira Donostiako gazteen ikuspegia eta esku-hartze proposamenak. Beraz, esparrurik eratu ez arren, ESEPeK jasotzen dituen esparruetan gazteentzako ekintza zehatzak landuko dira (aisialdian, kirolean, irakaskuntzan...). Horrela, bereziki zainduko dira gazteen dimentsioa eta ikuspegia. Gaur egungo donostiar gazte gehienek badakite euskaraz, etorkizuna dira eta adin tarte hori oso garrantzitsua da hizkuntz ohiturak finkatzeko. Hizkuntzaren normalizazio prozesuan giltzarri direla zalantzarik ez dago.



3. Udalaren eskumenak eta erakundeen arteko koordinazioa.

Erakunde publiko guztiek hartzen dute parte hizkuntzaren normalizazio prozesuan, bakoitzak bere mailan. Hizkuntza politikaren ardatzak zehaztea eta prozesua gidatzea erakunde publikoei dagokie eta kudeaketa mailan bakoitzak konpromisoak hartu behar ditu, bere eskumenak kontuan hartuz. Donostiako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, berari dagozkion eskumenak kontuan izanik ekingo dio planaren inplementazioari, beti ere, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa bilatuz. Bereziki landu beharko da koordinazioa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzarekin.

Zentzu horretan, donostiarren hizkuntza eskubideetan eragina izan dezakeen edozein egoeraren aurrean, Udala dagokion erakundearekin harremanetan jarri eta egoera horri aurre egiten saiatuko da nahiz eta Udalaren eskumenekoa ez izan.

4. Planifikatua eta malgua.

Donostiako Euskararen Plan Orokorren eragin aldia 2015-2019 izango bada ere, kudeaketa urtez urteko ekintza planen bitartez gauzatuko da. Planaren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak definitu eta aplikatuko dira. Dena den, azpimarratzekoa da plana irekia eta malgua dela, eta hori, batik bat, ebaluazio jarraituak emango du. Hau da, segimendu etengabeak adierazten duenaren arabera, beti egongo da egokitzapenak eta doikuntzak egiteko aukera.

Era berean, Udalaren nahiz gainerako normalizazio eragileen baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen direla bermatzeko, garrantzitsua izango da ebaluazio sistemak sortzea eta ezartzea, hizkuntzaren normalizazio prozesuan egindako inbertsioen eta jasotako emaitzen arteko harremanak aztertu ahal izateko.

5. Orokorra diseinuan eta tokian tokikoa inplementazioan.

Oso garrantzitsua izango da Plan Orokorren helburu eta ekintza orokorrak hiriko auzo eta herrietako bizitzaren ezaugarri propioetara hurbildu eta etengabe egokitzen joatea. Horren isla da auzoetako plan integralek hurrengo plangintzaldian izango duten pisua.



5. ESPARRUETAKO PLANGINTZA

Atal honetan 2015-2019 Donostiako Euskararen Plan Orokorren hiru helburu estrategikoei eta bi zehar lerroei loturiko esparruetako neurri ekintzak jasotzen dira. Esparruz esparru estrategia gakoak ere zehazten dira, aurreko planaren oinarritzko azterketatik eratorriak.

Hori guztia fitxetan aurkezten da, eta fitxa bakoitzeko osagaiak honako hauek dira:

- a) **Neurria:** esparruari loturiko helburu zehatza islatzen du eta letra lodiz agertzen da.
- b) **Zehar lerroa:** “sentsibilizazioa eta motibazioa” zehar lerroari lotutako neurri zehatzak ere jaso dira esparru bakoitzean, hala dagokionean.
- c) **Adierazleak:** planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, neurri bakoitzaren betetze maila neurtzeko proposatzen dira adierazleak.
- d) **Ekintza:** dagokion neurria garatzeko proposatzen den egitasmo edo programa jakina da. Planean ESEPen jasotzen diren ekintza ereduak proposatzen dira. Horiek oinarri, Euskara Zerbitzuak egingo dituen ekintza zehatzak urteko kudeaketa planetan zehaztuko dira, 2015eko planean jaso diren moduan.
- e) **Eragileak:** zehaztutako neurria betetzeko orduan ardura izango duen edota parte hartuko duen erakunde edo eragile publiko zein pribatua da.
- f) **Garrantzia:** lehentasunak finkatzeko proposatzen den garrantziaren araberako sailkapena. Hiru dira erabilitako parametroak: ertaina, ertain-handia eta handia.



5.1. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN JABEKUNTZA

5.1.1. ESPARRUA: FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

ESTRATEGIA

Familia bidezko euskararen transmisioa ziurtatzea oinarrizkoa da hizkuntzaren biziraupenerako. Horretarako, familiaren barne bizitzan erabilera areagotzeko sentsibilizazioa landu beharra ikusten da. Gurasoengana iristeko orain arte erabilitako estrategiak eta formatuak (hitzaldiak, gehienbat) ez dira nahikoak eta bide berriak landu behar dira. Horietako bat, esaterako, ikastetxeetan euskara ikasten ari diren guraso taldeetan bertan eragitea izan daiteke, dagoeneko osatu duten gune naturala aprobetxatuz.

Horrez gain, gurasoen artean eta kuadrillan edo beste zenbait taldetan euskara sustatzea garrantzitsua da, haurrentzat hizkuntzaren erabileran jarrera eredugarriak izatea garrantzitsua baita oso.

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (ESEP 1).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>1.1. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutaraztea eta eskura jartzea.</p> <p>1.2. Gurasoengan eragitea, haien hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.</p> <p>1.3. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea.</p>
<p>2. Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutzeko eta orain arte egindako ekimenen arrakasta neurtzeko (ESEP)</p> <p><i>GARRANTZIA: ERTAIN-HANDIA</i></p>	<p>2.1. Hiru urte arteko umeen eskolatzea aztertzea.</p>
<p>3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (ESEP 3).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>3.1. Eskolatik kanpo gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Euskara batzordeak / Gurasoak eta guraso elkarteak</p>	



NEURRIEN ADIERAZLEAK	ABIAPUNTUA
<ul style="list-style-type: none">- Familia bidezko euskararen transmisioari buruzko kanpaina eta ekimen kopurua (1. NEURRIA).- 3 urteko umeen matrikulazio bilakaera (2. NEURRIA).- Euskararen erabilera familia barruan (3. NEURRIA).	<ul style="list-style-type: none">- 3 ekimen.- A: % 9,30 / B: % 3,78 / D: % 86,84 (2014-2015 ikasturtea).- Euskara: % 12,12 / Gaztelania: % 76,10 / Biak: % 9,63 / Beste bat: % 2,15 (EUSTAT 2011).

5.1.2. ESPARRUA: IRAKASKUNTZA

ESTRATEGIA

Esparru honetan Euskara Zerbitzuaren aldetik aurreikusten den esku-hartzea eskolaz kanpoko jardueri begirakoa da, eskola barruko jarduna ez baita Udalaren eskumenekoa. Udalari kalean eta aisialdian egiten diren ekintzen hizkuntza normalizazioaz arduratzea dagokio. Horregatik, aisialdi esparruan proposatzen den esku-hartzearekin ondo uztartu beharko da hemen proposatzen dena. Zentzu horretan, Egian abian jarritako esperientzia baliagarria izan daiteke irakaskuntza eta aisialdi esparruak uztartzeko.

Ikasleek ikasgelatik kanpo, auzoan eta herrian, egiten dituzten jardueretan edo dauzkaten hizkuntza harremanetan euskararen erabilera areagotzeko bideak lantzea da Euskara Zerbitzuaren zeregina, eta, horretarako, jarduerak antolatzea baino gehiago, dagoeneko antolatzen direnetan eragitea litzateke helburua.

Parte-hartze prozesuan unibertsitatearekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea ere proposatu da, betiere ikasketa eremutik kanpoko proiektuak edo ekimenak garatzeko.



NEURRIAK	EKINTZAK																								
<p>1. Ahozko hizkuntza jarduna lantzea (ESEP 3).</p> <p><i>GARRANTZIA: ERTAIN-HANDIA</i></p>	<p>1.1. Ahozko jardunaren ahuleziak gainditzeko haur eta gazteei begirako estrategia egokia garatzea.</p>																								
<p>2. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea (ESEP 4).</p> <p><i>GARRANTZIA: ERTAIN-HANDIA</i></p>	<p>2.1. Nerabe eta gazteen hizkuntza erabileraren egungo ezaugarriak aztertzea.</p> <p>2.2. Euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez).</p>																								
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Gazteria saila / Ikastetxeak/ Guraso elkarteak / Euskara batzordeak/ Gaztelekuak.</p>																									
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteen euskararen erabilera (1-2 NEURRIAK). - Donostiako ikastetxeetako matrikulazioaren bilakaera (2 NEURRIA). 	<p>ABIAPUNTUA</p> <p>- % 14,6 (Soziolinguistika Klusterra, 2011).</p> <table border="1" data-bbox="810 1003 1401 1435"> <thead> <tr> <th>2013-2014 ikasturtea</th> <th>A %</th> <th>B %</th> <th>D %</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>- HH2-HH5</td> <td>9,3</td> <td>6,4</td> <td>84,3</td> </tr> <tr> <td>- LH</td> <td>8,8</td> <td>28</td> <td>63,2</td> </tr> <tr> <td>- DBH</td> <td>8,4</td> <td>37,2</td> <td>54,4</td> </tr> <tr> <td>-Batxilergoa</td> <td>44,3</td> <td>7,9</td> <td>47,8</td> </tr> <tr> <td>- Zikloak</td> <td>71,1</td> <td>0,7</td> <td>28,2</td> </tr> </tbody> </table>	2013-2014 ikasturtea	A %	B %	D %	- HH2-HH5	9,3	6,4	84,3	- LH	8,8	28	63,2	- DBH	8,4	37,2	54,4	-Batxilergoa	44,3	7,9	47,8	- Zikloak	71,1	0,7	28,2
2013-2014 ikasturtea	A %	B %	D %																						
- HH2-HH5	9,3	6,4	84,3																						
- LH	8,8	28	63,2																						
- DBH	8,4	37,2	54,4																						
-Batxilergoa	44,3	7,9	47,8																						
- Zikloak	71,1	0,7	28,2																						



5.1.3. ESPARRUA: EUSKALDUNTZEA-ALFABETATZEA

ESTRATEGIA

Euskararen erabilera aurrera egiteko, oraindik ere, euskalduntze-alfabetatze prozesua sustatzen jarraitu behar da. Horretarako, beharrezkoa ikusten da euskara ikasteko baliabideak eskaintzen eta ikasleentzat diru laguntzak handitzen jarraitzea.

Euskalduntze-alfabetatze arruntera ikasleak erakartzeko ahaleginarekin batera, lehentasunezko ildoak izango da gizarte esparru guztietara zuzendutako ikastaro laburragoak sustatzea: gurasoentzako, aitona-amonentzako, ostalarientzako edota merkatarietzako ikastaroak, besteak beste.

Donostiako langabeentzat doako ikastaroak antolatzen jarraitzea ere oso garrantzitsua da, besteak beste lan mundurako sarbidea errazteko laguntza bat direlako ikastaroak. Gainera, datuek erakusten dutenaren arabera, nabarmena da ikastaro horietatik euskalduntze prozesu arruntera jauzi egiten duen ikasle kopurua.

Helburu horietan aurrera egiteko, Udalak jar ditzakeen baliabide eta bitartekoez gain, estrategikoa da Donostiako euskaltegiekiko elkarlana. Beste esparru batzuetako helburuak erdiesteko ere oso garrantzitsua da elkarlan hori, esate baterako, Donostian dagoen euskarazko kultur eta aisialdi eskaintzaren berri emateko, euskaldunen sarea osatzeko, eta abar.

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Finantzaketa sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea (ESEP 3).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>1.1. Finantzaketa egonkorrarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei erantzuteko sistema bat eratzea.</p>
<p>2. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartzeko (ESEP 8).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>2.1. Euskarazko harreman sareak trinkotzeko eta talde dinamikak sortzeko aukera ematea.</p> <p>2.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea.</p>
<p>ZE HAR LERROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA</p>	
<p>3. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea euskara ikasteak ekar liezazkiekeen onurak azpimarratuz (ESEP 4.1.).</p>	
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Euskaltegiak / Bagera.</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <p>- Donostiako Udalak euskalduntze-alfabetatzera bideratutako diru-laguntzen bilakaera (1.</p>	<p>ABIAPUNTUA</p> <p>- 296.760,86 € (2014an).</p>



NEURRIA).	
- Donostiako euskaltegietako euskara ikasleen kopurua (1. NEURRIA).	- 3.327 ikasle (2013-2014 ikasturtea).
- Donostiako Udalak diruz lagundutako ikasle kopurua (1. NEURRIA).	- 1.723 ikasle (2013-2014 ikasturtea).
- Diruz lagundutako euskaltegietako gelaz kanpoko ekintza kopurua (3 NEURRIA).	- 5 (Mintzalaguna, mintzodromoak, Mintzanet eta euskaltegien 2 egitasmo) 2013-2014.

5.2. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA

5.2.1. ADMINISTRAZIOA

ESTRATEGIA

Donostiako Udala azken hamarkadetan progresiboki ari da udal administrazioan euskararen erabilera sustatzen eta 2013ko uztailaren 19an onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak indarrean dagoen azken plana: "Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Donostiako Udalean. 5. plangintza aldia (2013-2017)".

Planak hiru helburu orokor ditu: 1) herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izatea, lehentasuna euskarari emanez; 2) beste administrazioekiko ere euskara harreman hizkuntza izatea bideragarri den guztietan; 3) euskara Udaleko lan hizkuntza izatea, prestakuntza egokiaz baliatuta, progresibotasunez eta etengabe.

Udaleko langileen hizkuntza gaitasuna asko hobetu da azken urteotan eta herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera ia neurri handi batean bermatua dago. Hala ere, udal zuzendaritza askotan, urte luzeetako inertiaren indarrez, nagusiki gaztelaniaz jarraitzen da lan egiten. Indarrean dagoen planaren bidez, egoerak ahalbidetzen duen guztietan bai herritarrekiko harremanetan bai udal barruan euskara erabiltzea bultzatu nahi da, betiere herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.

Hori horrela, euskararen erabilera sustatzeko neurriez gain, ezinbestekoa izango da udaleko partaide guztien (langile nahiz arduradun politiko) inplikazioa eta herritarren bultzada lortzea.

Bestetik, planean bertan jasotzen da Donostiako udal sozietate publikoek ere euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu, onartu eta garatu beharko dituztela beren jardunean. Eta Euskara Zerbitzuak zuzeneko jarraipena egingo dio hori horrela gauza dadin.



NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Langileen hizkuntza gaitasuna hobetzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>1.1. Derrigortasun datak jartzea lanpostu berrietan, hutsetan (jendaurrekoak nahiz gizarte izaerakoak eta izaera orokorrekoak) eta lehiaketara ateratzen diren lanpostuetan.</p> <p>1.2. Langileen hizkuntza gaitasuna hobetzeko ohiko euskara ikastaroetara bideratzea eta lanari lotutako euskarazko prestakuntza eskaintzea.</p>
<p>2. Udalaren jardun eremu eta prozedura guztietan hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak finkatu eta betetzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>2.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak ezagutzera emateko komunikazio ekintzak.</p> <p>2.2. Jarraibideak betetzeko baliabideak eta hizkuntza aholkularitza eskaintzea.</p> <p>2.3. Jarraipenerako bideak lantzea.</p>
<p>3. Langileen eta arduradunen (tekniko eta politikoen) inplikazioa lortzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>3.1. Zuzendaritzetako erabilera batzordeak dinamizatzea.</p> <p>3.2. Langileak sentsibilizatzeko komunikazio ekintzak.</p> <p>3.3. Arduradun politikoak sentsibilizatzeko komunikazio ekintzak.</p>
<p>4. Herritarrek Udalarekin harremanak euskaraz izan ditzaten sustatzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>4.1. Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak</p> <p>4.2. Herritarren hizkuntza erabileraren neurketak.</p>
<p>5. Donostiako sozietate publikoek euskara normalizatzeko planak onartzea eta garatzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>5.1. Udalak onartutako planarekin bateratzeko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean aritzeko ekintzak.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Donostiako Udaleko zuzendaritzak</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza eskakizunen egiaztapena (%) eta lanpostuetako derrigortasun daten % (1. NEURRIA). - Langileei begira komunikazio ekintzen kopurua (3. NEURRIA). - Erabilera batzordeetako partaide kopurua (3. NEURRIA). - Herritarrei begira komunikazio ekintzen kopurua (4. NEURRIA). - Herritarren hizkuntza erabilera % (4. NEURRIA) - Plana onartu eta abian duten sozietate publikoen kopurua (5. NEURRIA). 	<p>ABIAPUNTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Langileen %59 Hizkuntza Eskakizuna egiaztatua (DD izan ala ez) / Lanpostuen %73,75 DD ezarria. - 4 ekintza (prentsurrekoa, komunikazio kanpaina, mosaikoa eta asteroko bidalketak) - 19 erabilera batzorde / 99 langile. - 2 ekintza (prentsurrekoa, komunikazio kanpaina) - %25 euskaraz_%73 gazteleraz_%2 elebietan. - 6 sozietate.



5.2.2. ESPARRUA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA (MERKATARITZA ETA OSTALARITZA)

ESTRATEGIA

Arlo sozioekonomikoari dagokionez, merkataritzan eta ostalaritzan hasitako ibilbideari jarraipena ematea izango da hurrengo urteetako asmoa. 2014an, Euskara Zerbitzuak esparru honetako eragileekin gogoeta egiteko eta parte hartzeko prozesua eta hurrengo urteetako lan ildoak eta proposamenak adostu dira. Helburu nagusia da arreta euskaraz eskain dezaketen establezimenduak identifikatzea eta haiek bezeroei lehen hitza euskaraz egitea.

Merkataritza gunen handietan eragiteko beharra ere ikusten da, Donostiako Udalaren Euskararen Ordenantzan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Planean ezarritakoa beteko dutela bermatzeko. Erosleak eta herritarrak, oro har, aktibatu beharko dira merkatarien eta ostalarien euskararen aldeko jarrera eta portaeretan eragiteko. Donostiako arlo sozioekonomikoan ere eragingo da, Udalak berak eta haren entitateek egiten dituzten kontratuetan hizkuntza irizpideak bete daitezela eskatuta.

Donostia Sustapenarekin aliantza eta elkarlana lantzea ere gakoa izango da, baita Enpresarean eta halako ekimenak laguntzea ere.

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea (ESEP 3).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>1.1. Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan berma ditzaten neurriak hartzea, indarrean dagoen araubidea betearaziz eta horretarako enpresen aldetik konpromisoa, partaidetza eta konplizitatea lortuz.</p>
<p>2. Euskara merkataritza munduan erabiltzeari prestigioa ematea.</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>2.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongizatearekin identifikatzeko.</p>
<p>ZEHAR LERROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA</p>	
<p>3. Herritarrengan eta merkatarari edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.</p>	
<p>4. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jartzea, merkataritza elkarteetan bitartez.</p>	



ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua /Merkataritza elkarteak eta Ostalaritza Elkarte / Auzoetako euskara batzordeak.

NEURRIEN ADIERAZLEAK

- Euskalduntzeko ikastaro arruntetan ari diren merkatari eta ostalarien kopurua (1.NEURRIA).
- Xede berezietako ikastaroetako merkatari eta ostalari kopurua (1. NEURRIA).
- Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten establezimenduen kopurua (1. NEURRIA).
- Euskararen prestigioa bultzatzeko ekimen kopurua (2. NEURRIA).

ABIAPUNTUA

- 49 merkatari eta ostalari (2013-2014 ikasturtea).
- 137 merkatari eta ostalari (2014an).
- 500 establezimendu.
- 2 ekintza nagusi (bisitak eta "... ere euskaraz" kanpaina).

5.2.3. ESPARRUA: AISIALDIA-KIROLA

ESTRATEGIA

Aurrera begira euskara zerbitzuak aisialdi ekintzak antolatzea baino areago, beste sailekin elkarlanean (Donostia Kulturarekin, Gazteriarekin, Gizarte Ongizatearen Zerbitzuarekin...) hiriko eskaintzan eragiteko premia ikusten da. Aisialdi enpresa eta taldeen jardunean eta eskaintzan eragitea ildo estrategikoa izango da, beraz.

Euskara Zerbitzuaren posizionamendua bi helbururi lotua ikusten da: euskarazko eskaintzarik ez dagoen lekuetan antolatzea eta, batez ere, besteen jardueran eragitea (baita udal barrukoan ere) dagoeneko hirian dagoen eskaintza zabalean euskarazkoa areagotzeko, sustapen lana eginez, baliabideak eskainiz, jarraipena eginez...

Kirolaren esparruan ere hausnarketa bera egin da. Zalantzarik gabe, Donostia Kirolarekin elkarlan estua bideratu beharko da lehendik dagoen eskaintzan euskarazkoa areagotzeko neurriak hartzeko. Era berean, kirol elkarte eta klubekin elkarlanean aritzeko aliantzak egin behar dira, eta, hizkuntza ohituretan modu iraunkorrean eragiteko, abian diren esperientziak baliatuz, esku hartzeko moduak finkatu eta elkarte eta klub gehienetara zabaltzea litzateke erronka.

Hori guztia lortzeko, bai aisialdian eta bai kirolean, bi estrategia garrantzitsu aurreikusten dira: auzoetako plan integralen bitartez eragitea eta udal sailletako jarduera bateratua landu eta adostea.

Kirolak badu ezinbestean landu beharreko beste alderdi bat: legeria eta arautegia. Batez ere haur eta gaztetxoek egiten duten kirola oso arautua dago eta oinarritzkoa da hor eragin eta erabaki batzuk hartzea. Hori Udalaren eskumenetik harago dagoenez, eskumena duten erakunde publikoekin landu beharreko gaia izango da.



A- AISIALDIA

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (ESEP 1).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.</p> <p>1.2. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea.</p>
<p>2. Begiraleen prestakuntza sendotzea (ESEP 2).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>2.1. Begiraleen hizkuntza profilak/trebakuntza hobetzea, batetik, eta, bestetik, zer betekizun bete behar dituzten zehaztea delako ekimena egoki eskaini ahal izateko.</p>
<p>ZEHAR LERROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA</p> <p>3. Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.</p> <p>4. Sentiberatze eta informazio kanpainak diseinatzea aisialdirako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten enpresa eta kolektiboentzat.</p>	
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua /Euskara batzordeak/ Donostia Kultura/ Gazteria Saila / Aisialdi taldeak.</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <p>- Donostiako euskarazko aisialdi eskaintza, jarduera kopurua (1. NEURRIA).</p> <p>- Euskararen erabilera sustatzeko begiraleei eskainitako ikastaro kopurua (2. NEURRIA).</p>	<p>ABIAPUNTUA</p> <p>- 1.170 jarduera (2014).</p> <p>- 0 ikastaro.</p>

A- KIROLA

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (ESEP 8).</p> <p>GARRANTZIA: <i>HANDIA</i></p>	<p>1.1. Herri edota hirietan kirol arloan diharduten kolektiboekin lankidetzak protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza trebakuntza antolatzeke eta kirol ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko une oro.</p>



ZEHAR LERROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

2. Kirol taldeekiko lankidetzaren bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua /Euskara batzordeak/ Donostia Kirola/Kirol klub eta taldeak/ Foru Aldundia

NEURRIEN ADIERAZLEAK

- Donostiako Udalak finkatutako hizkuntz irizpideak betetzen dituzten kirol ekitaldi nagusien portzentajea (1. – 2. NEURRIAK).
- Kirolean euskararen erabilera areagotzeko ekimen kopurua (2. NEURRIA).
- Euskara Zerbitzuak esku hartu duen elkarte eta klubetako entrenatzaileen hizkuntza ezagutza (2. NEURRIA).

ABIAPUNTUA

- 21 ekitaldi nagusitatik %76,2k erabat betetzen dituzte irizpideak (guztiz elebitan edo euskaraz gehiago) eta 23,8k ez (oraindik ere elementuren bat edo beste gaztelania hutsez dutelako).
- 2015ekoak jasoko dira.
- 2015ekoak jasoko dira.

5.3. HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ELIKADURA

5.3.1. ESPARRUA: KULTURGINTZA

ESTRATEGIA

Euskara Zerbitzuaren posizionamendua bide honetatik ikusten da arlo honetan: hirian dagoen kultur eskaintzan euskarazkoa indartzea eta eskaintza honekiko eskaera areagotzea, elkar elikatzeko modua bilatuz. Horretarako, eskaintzaren komunikazioan eta sustapenean eragin beharko da, beste esparruetan aipatu diren euskaldunen sareak eta guneak aprobetxatuz (kultur eta aisialdi programazioaren berri emanez, euskarazko produktuen gida banatuz...).

Dagoeneko hirian dagoen kultur eskaintza zabalean euskarazkoa areagotzeko, aisialdi eta kirol esparruan bezalaxe, ezinbestekoa izango da besteen jardueran eragitea. Bide horretan garrantzi handikoa da Donostia Kulturarekin eta Udaleko beste zenbait kultur programatzaileekin nahiz hiriko kultur eragileekin elkarlana bideratzea hizkuntza oinarri duen kultur adierazpen guztietan: zinema, antzerkia, musika, literatura...

Euskara Zerbitzuak diruz laguntzen dituen ekintza batzuk, kultur programazioa diren aldetik, Donostia Kulturatik bideratu beharko lirakeela ikusten da eta dagoeneko hasiak dira eskualdatze hori egiten egitasmo batzuetan.



NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (ESEP 1).</p> <p><i>GARRANTZIA: ERTAIN-HANDIA</i></p>	<p>1.1. Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema bat eratzea.</p> <p>1.2. Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea.</p> <p>1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea.</p>
<p>2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea (ESEP 2).</p> <p><i>GARRANTZIA: ERTAIN-HANDIA</i></p>	<p>2.1. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.</p>
<p>3. Euskarazko kultura produktuak zabaltzea (ESEP 4).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>3.1. Informazioa zabaltzeari begira, erakundeen arteko elkarlana sendotzea.</p>
<p>ZEHAR LERROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA</p>	
<p>4. Herritarren artean euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoa bultzatzeko komunikazio ekintzak indartzea.</p>	
<p>ERAGILEAK: Ikastetxeak / Euskara Zerbitzua / Donostia Kultura/ Kultur eragileak.</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskarazko kultura produktuen kontsumoa sustatzeko ekimen kopurua (1. NEURRIA). - Euskarazko kultura sorkuntza sustatzeko sariak eta lehiaketak (2. NEURRIA). - Zabalkundea egiteko ekintza kopurua (3. NEURRIA). 	<p>ABIAPUNTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2 ekintza (Euskarazko produktuen gida, euskarazko ekitaldien sarrera banaketa). - 5 sari/lehiaketa (Donostia antzerki saria, Oihenart aforismo lehiaketa, Poltsiko antzerkia, Koldo Mitxelena Literatur lehiaketa, Gipuzkoako Bertsolari txapelketa). - 2 ekintza (euskarazko jardueren berri ematea, weba eta sare sozialak).



5.3.2. ESPARRUA: CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

ESTRATEGIA

Administrazioaren beste zereginetako bat da euskarazko produkzioaren kalitatea eta komunikagarritasuna bermatzea. Konkretuki, Euskara Zerbitzuak beste udal zerbitzuetako produkzioari eta Donostian produzitzen denari jarri behar dio arreta. Nahiz eta zuzenean Udalaren egitekoa ez den, euskararen erabilera indartzeari begira, garrantzitsua izango da adierazkortasuna lantzea, batez ere gazteen artean. Ildo horretatik, erakunde eta entitateen arteko elkarlana bilatu behar da.

Era berean, hiriko kale izendegia edota toponimia zaintzea ere garrantzitsua da. Lan hori Euskaltzaindiarekin eta beste erakunde batzuekin batera egiten da.

Hala ere, esparru hau ez da lehentasunezkoztat jotzen Udalaren egitekoen barruan.

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Toponimia eguneratu, osatu, ofizialdu eta zabaltzea (ESEP 3)</p> <p>GARRANTZIA: ERTAINA</p>	<p>1.1. Hizkuntza paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza bideak jarritz.</p>
<p>2. Adierazkortasuna zaintzeko eta indartzeko neurriak hartzea (ESEP 5)</p> <p>GARRANTZIA: ERTAINA</p>	<p>2.1. Tokian tokiko euskalkiak zaintzea eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistroak kontuan hartuz.</p> <p>2.2. Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea horretarako ekimen zehatzak abian jarritz.</p>
<p>3. Euskararen kalitatea zaintzea (ESEP 6)</p> <p>GARRANTZIA: ERTAINA</p>	<p>3.1. Euskararen erabilera publikoaren kalitatea bermatzea.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Euskaltzaindia / Badihardugu / Hirigintza zuzendaritza</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <p>- Euskararen corpusaren alorreko eragileekin sinatutako hitzarmenen kopurua (1. NEURRIA).</p> <p>- Itzulpen eta zuzenketen kopurua (3. NEURRIA)</p>	<p>ABIAPUNTUA</p> <p>- 2 (Euskaltzaindia, Badihardugu).</p> <p>- 86 eskaera.</p>



5.3.3. ESPARRUA: HEDABIDEAK

ESTRATEGIA

Euskarazko hedabideak laguntzea eta herritarren artean kontsumoa sustatzea estrategikoa da hizkuntzaren normalizazioari begira. Bertako informazioa gertu-gertutik eta euskaraz jasotzeko baliabide egoki gisa aurkeztu beharko litzaieke herritarrei.

Ezinbestekoa ikusten da euskarazko tokiko hedabideen egoerari buruzko hausnarketa egitea eta daukaten potentziala bilatzea, batez ere sektorearen aldetik, baina baita erakundearen aldetik ere. Sektorea diruz laguntzen jarraituko du Euskara Zerbitzuak, eta etorkizunean sektoreak duen bilakaeraren jarraipena egingo du.

Bestalde, merezi du Gaztezulorekin dagoen elkarlana indartzea. Izan ere, aliatu interesgarritzat jotzen da gazteengana heltzeko.

Era berean, publizitatean eragiteko beharra ere ikusten da, batez ere Donostiako Udalaren Euskararen Ordenantzak eta Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Planak araututakoa betetze aldera (kontratazio irizpideak). Horren jarraipena egitea Euskara Zerbitzuari ere badagokio eta zeregin horretan sakondu beharko da datozen urteetan.

NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea (ESEP 2).</p> <p>GARRANTZIA: HANDIA</p>	<p>1.1. Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea eta, sektorearekin adostuta, euskarazko hedabideen garapen estrategikoaren ildo nagusiak zehaztea.</p>
<p>2. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea (ESEP 5).</p> <p>GARRANTZIA: HANDIA</p>	<p>2.1. Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzeko eta prestigioa emateko kanpainak antolatzea hedabideekin batera eta emaitzak neurtzea.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Euskarazko hedabideak/ Bagera/ Euskara batzordeak.</p>	
NEURRIEN ADIERAZLEAK	ABIAPUNTUA
<p>-Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko kanpaina kopurua (2. NEURRIA).</p> <p>-Euskarazko hedabideen kontsumoa (2. NEURRIA).</p> <p>-Diruz lagundutako Donostiako hedabideen kopurua</p>	<p>- 1 (Irakurriz gozatu).</p> <p>- Hitza: 61.355 erabiltzaile / Hamaika: 12.000 ikusle.</p> <p>- 7 hedabide (2014).</p>



5.4. ZEHAR LERROAK: SENTSIBILIZAZIOA ETA ZABALKUNDEA

ESTRATEGIA

Euskararen ezagutza indartzeko eta erabilera areagotzeko ezinbesteko baldintza da euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa lantzea. Euskara ikasteko edo erabiltzeko motibazioa era askotakoa izan daiteke: afektiboa, identitateari lotua, pragmatikoa... Batzuetan zein besteetan sakontzea gakoa da hizkuntzaren berreskuratze prozesuan, erabilera esparruak irabaziz aurrera egiteko.

Donostiako Udalak erabilera areagotzeko leku guztietan eta beti lehen hitza euskaraz egiteak duen garrantziaz herritarrak ohartarazteko hasia duen lan ildoarekin aurrera egitea aurreikusten da. “Udalean ere euskaraz”, “Dendan ere euskaraz”, “Kiroldegian ere euskaraz”... eta “Donostian ere euskaraz” leloak esparru guztietara zabaldu nahi dira eta hasitako bideari jarraipena emateko askotariko ekintzak garatzen joatea da helburua, “Donostia, euskararen hiria” marka indartuz aldi berean.

Motibazioa makro mailan edota mikro mailan landu daiteke eta biak dira garrantzitsuak gizarte esparru guztietara iristeko: kanpainak komunikabideetan, sare sozialak, talde txikientzako tailerrak, lidergoa lantzea, eredu onak zabaltzea... Bide guztiak dira beharrezkoak hizkuntza erabiltzeko argudioak emateko eta hizkuntzen erabilera kudeatzeko estrategiak eskaintzeko. Beste zenbait erakunderekin elkarlana bilatzea ere gakoa izango da, esate baterako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin, Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzarekin, Soziolinguitika Klusterrarekin, HUEZLekin...

SENSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA	
<p>NEURRIAK</p> <p>1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea (ESEP 1).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>EKINTZAK</p> <p>1.1. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.</p> <p>1.2. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.</p>
<p>2. Teknologia berriak (ESEP 11).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>2.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Esparruetan aipaturikoak.</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <p>- Euskarari prestigioa emateko ekimen kopurua (1. NEURRIA).</p>	<p>ABIAPUNTUA</p> <p>- 10 ekintza (jardueren berri ematea, Matrikulazio kanpaina euskarazko ereduetan, Euskara ikasteko matrikulazio kanpaina, Haur jaioberrien kanpaina, gurasoentzako hitzaldi eta tailerrak, merkatari eta</p>



	ostalariei bisitak, “Udalean ere euskaraz” , merkataritzan ere, eta Donostian ere.. kanpaina, Euskararen eguna).
ZABALKUNDEA	
NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen proiektzioa hirian bultzatzeko (ESEP 3).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>1.1. Dagoeneko indarrean dauden hitzarmenak garatzea eta gorpuztea.</p> <p>1.2. Lankidetzta berrien aukera aztertzea.</p>
<p>2. Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte hartzea (ESEP 4).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>2.1. Sinposio eta bestelako ekitaldietan parte hartzea.</p>
<p>3. Euskara eta euskarazko kultura ezagutarazteko ekitaldiak eta ikuskizunak diseinatzea (ESEP 5).</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>3.1. Webgune erakargarri eta edukiz bete baten bitartez euskarari eta euskal kulturari buruzko informazio aberatsa eskaintzea.</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Euskara batzordeak / Euskara eta kultur elkarteak / Udal atalak: Donostia Kultura, Gazteria, Partaidetza... / Euskaltegiak, ikastetxeak...</p>	
NEURRIEN ADIERAZLEAK	ABIAPUNTUA
<ul style="list-style-type: none"> - Euskara eta euskarazko kultura ezagutarazteko ekimen kopurua (1. NEURRIA). - Euskara sustatzeko Udalaren eta entitateen arteko hitzarmen kopurua (1. NEURRIA). - Euskara Zerbitzuak parte hartutako foro eta sinposioen kopurua (2. NEURRIA). 	<ul style="list-style-type: none"> - 3 ekintza (Euskarazko produktuen gida, web gunea eta sare sozialak, Euskararen eguna). - 4 hitzarmen (2014). - 2015ekoak jasoko dira



5.5. AUZOETAKO PLAN INTEGRALAK

ESTRATEGIA

Auzoetako plan integralek, alde batetik, herritarrek hurbilagoko kudeaketa baten alde egiten duten eskaerari erantzuten diote, eta, bestetik, Euskararen Plan Orokorra Donostiako auzo eta herrietan modu zuzenago eta egokituago batean gauzatzeko tresna dira.

Lehenagotik Donostiako auzo eta herriren batean euskara elkarteren bat bazegoen arren, elkarre edo batzorde horien garrantziaz jabetuta, halakoen sorrera bultzatu eta elkarlanerako bideak finkatzen hasi zen Udala duela bizpahiru urte. Une honetan, Donostiako 9 auzo eta herritan daude osatuta euskara batzordeak, eta besteren bat sortzear da.

Batzorde hauek auzoko euskararen azterketa eta diagnostikoa egina dute eta, Euskararen Plan Orokorra esparru gisa hartuta, auzoan euskararen normalizazioak aurrera egiteko helburu zehatzak finkatzen dituzte. Horrez gain, urtez urteko ekintza plana egiten dute. Bertan, euskararen ezagutza eta, batez ere, gizarte erabilera sustatzeko ekintzak jasotzen dira.

Plan horiek gauzatu ahal izateko, Euskara Zerbitzuak, batetik, diru laguntzen lerro bat dauka zabalik, eta, bestetik, batzordeei laguntza, aholkularitza eta dinamizazio lanak egiteko zeregina Bagera Euskaltzaleen Elkarteari esleitu dio.

Horrez gain, Udala laguntzen ari da baita ere Egia auzoan Aitor ikastola garatzen ari den esperientzia pilotua, Sortzen Ikasbatuaz-en eta Kontseiluaren "Ikasle euskaldun eleanitzak" proiektuan oinarritutakoa. Egitasmo honen barruan, Udalak laguntzen duena da Aitor ikastolako ikasleek eta parte hartzen duten gainerako ikastetxeetako ikasleek, auzoan zehar, eskolaz kanpoko guneetan izaten dituzten hizkuntza harremanetan euskara gehiago erabiltzera zuzendutako ekintzak eta ekimenak.

Batzordeak egiten ari diren lana eta ibilbidea oso positibotzat jotzen den arren, oraindik badago zer hobetua, bai Udalak laguntza eta finantzaketa eskaintzeko duen sistemari dagokionez, eta baita batzordeen funtzionamenduari dagokionez ere.

Estrategikotzat jotzen da epe laburrean ondoko urratsak egitea: alde batetik, batzordeak esparru guztietako kidez osatzea modu iraunkorrean edo ekintza puntualak aurrera eramateko garaian; eta, bestetik, batzordeen arteko saretzea lantzea, elkarren berri edukitzea, esperientziak trukitzea...

Garrantzizkotzat jotzen da euskara batzordeak "programatzaile kultural" izatetik "euskara sustatzaile" izatera pasatzea ere. Eta, horretarako, ezinbestekoa da bai Udalaren sustapena eta baita Bagerari esleitu dion dinamizazio eta aholkularitza lana ere.

Plan integral gehiago sortzen diren heinean, kudeaketa eta koordinazio sistema iraunkorra eta egokia garatu behar du Euskara Zerbitzuak, eta, ahal den neurrian, diru laguntzen kudeaketa erraztu.



NEURRIAK	EKINTZAK
<p>1. Auzo eta herrietako euskara batzordeen dinamika eta ekimenak indartzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>1.1. Auzo eta herri bakoitzean euskararen ezagutzaren eta erabileraren diagnostikoa egitea, aukerak eta lehentasunak definitzeko.</p> <p>1.2. Modu eraginkorrean erantzuteko bideak aztertzea eta baliabideak jartzea. Urteko kudeaketa planak egitea.</p> <p>1.3. Erabilera areagotzeko, motibazioa lantzeko eta giroa sortzeko ekintzak bideratzea esparru guztietako eragileekin elkarlanean.</p> <p>1.4. Batzordeak esparru guztietako eragileekin osatzen joatea.</p> <p>1.5. Euskara batzorderik ez dagoen auzo eta herrietan halakoak sortzeko modua egitea.</p>
<p>2. Auzo eta herrietako euskara batzordeen sarea ehuntzea eta elkarlanean ekimenak antolatzea.</p> <p><i>GARRANTZIA: HANDIA</i></p>	<p>2.1. Auzo eta herrietako euskara batzordeen arteko sarea osatzea: urtean bilera jakin batzuk egin, webgunean esperientziak trukatzeko atala, agenda bateratuak, ekintza bateratuak...</p>
<p>ERAGILEAK: Euskara Zerbitzua / Bagera/ Auzo elkarteak / Auzoetako eragileak: kultura, aisia, kirola, merkatariak, ostalariak/ Ikastetxeak/ Guraso elkarteak...</p>	
<p>NEURRIEN ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plan integralen kopurua (1. NEURRIA). - Diru laguntzen kopurua (1. NEURRIA). - Ekimen kopurua (1. NEURRIA). - Euskara Batzordeetako parte hartzaile kopurua (2. NEURRIA) 	<p>ABIAPUNTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - 9 plan integral (2014). - 24.392 (2014). - 112 ekimen (2014). - 50 kide.



6. PLANAREN JARRAIPENA

Donostiako Euskararen Plan Orokorren eragin aldia 2015-2019 izango bada ere, urtez urteko kudeaketa planen bitartez gauzatuko da. Eta kudeaketaren funtsezko alderdia planari jarraipena egitea izango da.

Planaren jarraipena egiteko oinarri izango dira adierazleak. Adierazle zehatzak eta neurgarriak, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa emango dutenak.

Adierazleak hiru dimentsio nagusi hauetan zehaztuko dira:

1. Planaren adierazle orokorrak

Aurreko planaren balorazioa egiterakoan eta eskuartean dugun honen abiapuntu den oinarrizko azterketan jaso dira.

2. Esparruetako neurrien arabera adierazleak

Esparru bakoitzari dagokion atalean jaso dira.

3. Ekintzen arabera adierazleak

Urteko kudeaketa plan bakoitzean zehaztuko dira.

6.1. HELBURUEN ETA EKINTZEN JARRAIPENA

Urteko kudeaketa planetan ekintza mailako adierazleak zehaztuko dira eta horiek emango diote bide Euskara Zerbitzuari ekintzak berrikusteko eta urtez urteko kudeaketa planak definitzen joateko. Era berean, esparru bakoitzeko neurrien adierazleen bitartez, ekintza horiei esker neurri edo helburu horiek zenbateraino betetzen diren ikusi ahal izango dugu. Horren arabera, hartutako bidetik aurrera egingo dugu edo estrategia eta ekintza berriak planteatuko ditugu.

Plana irekia eta malgua izango da, segimendu etengabeak adierazten digunaren arabera egokitzapenak eta doikuntzak egiten joateko.

Euskara Zerbitzuak egingo du urtez urteko kudeaketa planen jarraipena eta horren berri emango dio Euskararen Kontseilu Sektorialari elkarrekin azterketa eta hausnarketa egin eta, emaitzen arabera, aurrera begirako erabakiak hartzen joateko.



7. AURREKONTUAREN PROIEKZIOA

Jarraian 2015-2019 epealdian Euskararen Plan Orokorra bideratzeko behar izango liratekeen diru baliabideen aurreikuspen bat egiten da.

Aurreikuspena egiteko, aurreko planetako aurrekontuek eman dutena kontuan izanik, planaren ondoko alderdiak hartu dira oinarri: esparru bakoitzerako planteatzen den estrategia eta zehazten diren neurriei eta ekintzei erantzuteko aurreikusitako beharrak.

Abiapuntu gisa, 2015eko aurrekontua hartuko dugu, eta, horren barruan, Euskararen Plan Orokorra aurrera eramateko aurreikusten den diru kopuruaren gainean egingo da estimazioa.

2015ean Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrekontua 2.836.718 € da. Aurrekontu horietan Euskara Zerbitzuaren langileen kostuak, udal administrazioaren erabilera planari dagozkionak, itzulpen lanei dagozkienak eta plan orokorra garatzeko aurreikusitakoa biltzen dira.

Euskararen Plan Orokorraren 2015eko kudeaketa planean zehazten diren ekintzak aurrera eramateko 1.464.387 € aurreikusten dira. Esan bezala, kopuru hori abiapuntutzat hartuz, 2015-2019 epealdiko hurrengo lau urteetarako plan orokor honetan aurreikusten diren helburuak eta neurriak betetzeko aurrekontuak %15eko igoera beharko lukeela balioesten da.

Planaren indarraldia bukatzen denerako Donostia osoko auzo eta herrietan euskara batzordeak osatuta eta martxan izatea litzateke helburuetako bat. Urtez urte, progresiboki, bi euskara batzorde berri osatuz. Bestalde, herritarrek euskara ikasteko diru laguntzen kontu saila eta langabeentzako doako euskara ikastaroak antolatzeke kontu saila modu progresiboan igotzen joatea aurreikusten da. Horrez gain, aisialdian eta kirolean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak Donostiako elkarte eta klub gehienetara helarazi nahi dira. Eta gauza bera gertatzen da merkataritza eta ostalaritzaren sektorearekin. Auzo eta herri guztietara zabaldu nahi da iaz abian jarritako egitasmoa, eta baita jarraipenerako ekintzak abian jarri ere